

EUKENE LIZEAGA TAMAYOREN POEMAK

Ez zaituela ezerk asaldatu,
ezerk larritu,
dena igarotzen da,
Jainkoa ez da aldatzen.
Pazientziak dena heltzen du.
Jainkoa daukanari
ez zaio ezer falta.
Jainkoa soilik nahikoa da.

Avilako Teresa.

EZ AHAZTU

Iraganeko otoitzak
garai guztietako balio dutela
onartzen baduzu
sosegua hartuko duzu.

Ez zaituela nahasi
bizi zaren
historia epeak.
Ez zaituela ezerk larritu.

Moldatzea besterik ez duzu.
 Gizakien samin eta akatsen erak
 aldatzen badira
 Eternalarentzat ez dira berriak.
 Ez zaitez asaldatu.
 Baliagarriak baitira beti
 atzo, gero eta
 gaur ere bai.

PANDEMIA GARAIK

Inoiz baina gehiago
 alaitu diren
 egun eguzkitsu hauetan,
 gizakion egoera
 ilundu da.
 Ezagutzen ez genuen
 belztasun mota baten menpean.

Lurraren arnasa
 entzuteko aukera izan dugu,
 abereek hurbildu zaizkigu,
 garraioen zarata baretu den heinean.

Etxean gordeta
 gauari harriturik begiratu diogu;
 hain nabari zen isiltasuna!
 Zoritzarreen murgildurik geunden aldi berean,
 eskerrak emateko gogoia genuela.

Pandemia izena
jarri diogun
garaiak dira.

Espiritualitatea lantzeko garai...

EZ DAKIT ZERGATIK

Jauna, ez dakit zergatik;
historian zehar
agintarien nahi, erabaki eta akatsak
ahalmenik-gabeko herrikideek
ordaindu behar dituzten.

Ez dakit zergatik,
historian zehar
gizakumeentzat kaltegarriak diren
ideologiak, teoriak eta legeak
inposatu dituzten.

Era batera, edo bestera
XXI mendeetan berdin daramatzagun.

Badakit, aukeramena daukagula
baina, zertarako balio izan du
mende guzti hauetan?
Nora begiratu behar dut
agintea daukatenak

ez daukatenen
aukeramena
zapaltzen dutenean?

Botere mota guztien
nagusiak diren alde
erregu egiten ari naizela
ohartu naiz

Ez baitut beste erarik aurkitzen...

ZUREKIN

Beldurrek, ihes egiten dute
Jakinduriaren kosmosean
zentzurik ez baitute.

Zurekin
barne bakearen ekartzailea,
gau guztiei irribarrea
ipintzen diozuna.

Bizi modu estresagarriaren
ur iturri baretsua,
betidanik murgiltzeko
prest dagoena.
Hemengo bizitzaren
askatze eta ezinbesteko laguntza.

Eukene Lizeaga Tamayo